

Lana eta herriari gogotik!

[Egile ezezaguna]

Orria, 33. zk., 1991-02.

Oihartzun haundiko gizona, Martin Ugalde 1921ko azaroan jaio zen Andoainen, eta bertan bizitu zen herbesteak zigortutako familiarekin bildu nahian han-hemenka ibili eta aitarengana Venezuelara joan zen arte. Munduan barrena ibilitako gizona, etenik gabe Euskal Herria eta bere kulturarekiko griña aberatsa mamitu du bere baitan. Kazetaritza ikasketak Estatu Batuetan egin Venezuelako petroleo konpainiatan eta prentsa idatzian 15 urtez ihardun, eta, azkenik, 1969an familiarekin Euskal Herrira itzuli zen.

Leizaolaren gobernuko kontseilari eta "Deia" egunkariaren zuzendariorde izana, Garaikoetxeak 1982. urtean Euskararen Sustapenerako Zuzendari izendatu zuen, eta kargu hortan ihardun zuen 1985.arte. Geroztik, nobela eta ikerketa historikoak idazteari jarraitu zaio, eta egun, nobela berri bat idazteari eta amaitutakoak moldiztegirako prestatzeari denborarik gehiena eskaintzen dien arren, tarte batzu hartzen ditu, hitzaldi edo mahai-ingurutan partehartu. "Euskaldunon egunkariari" eragin edota ikerketa hainbat osatzeko.

Guk, hain bizitza eta lan opariari beldur. Orriarako elkarrizketa Andoaingo bizialdi eta gogoetei lotu diegu, asko bait zen hortaz Martin Ugaldek esan behar zuena; "*asko ibiliak azkar dakuska bidiak*" dio esaera zaharrak. Martin Ugaldek bere bizitzaren hasieran ibilitako zenbait kontakizun dira honakook.

– Andoainen jaio eta 14 urte bete artean bertan hazi zinen. Nola gogoratzen duzu garai hartako Andoain?

– Ni Basteron jaio nintzen, baina haur nintzela Zumeara bizitzera joan ginen. Lasterregi Berri etxera, aita bertan jaioa bait zen. Lehen letrak ikasi ondoren, hiru bat urterekin "Notre Dame" mojen eskolan hasi nintzen. Garai hartako oroipen dexente dut buruan, baina luze joko nuke gure gaztetako bizimodua kontatzen.

Izan zen gertaera bat herrian oihartzun haundia izan zuena. Bazen familia bat, Bidaleorkoak, osaba Ameriketan egona zutena eta kolpetik aberastu zirenak; erabat aldatu zen familia haren aldartea: berebiziko automobila erosi eta etxe ederra egin zuten. Espektakulu haundia izan zen herrian, ze, denok ezagutzen genituen eta Algodoneran lan egitetik automobilan herrian barrena paseatzera eta jendeari kasik begiratu ere ez egitera pasa ziren. Horrelako asko konta nitzake, orduko bizimodua gaurkoaren pare bestelakoa bait zen oso gauza askotan.

– Zuen aitak haroztegia zuen, ezta?

– Bai, egurrezko gauzak egiteko tailerra zuen. Hasieran etxeko sotoan jarri zuen, baina ibaiaren urak igotzen zirenean makina guztiak hartu eta izorratzen zituen eta, aurrerago, gure etxetik goraxeago zegoen etxe berri batetan jarri zuen. Oso gauza

farregarria gertatu zen, ordea, tailer berriarekin, azkenerako hara ere ibaiko urak iritsi bait ziren.

Aitak tailerra eraiki zionari esan omen zion jartzeko urak iritsiko ez ziren toki batetan, eta horretarako uholderik haundienak izan zirenean ura noraino iritsi zen neurtu zuten. Bazen gainera, esaera ezagun bat Andoainen esaten zuena uholdeak sekula ez zirela igo Santa Krutzeko Kristoaren oinetatikan gora, eta tailer berriko makinak jartzeko erreferentzi zientifiko hura hartu zuten. Behin, ordea, hasi ziren urak gora eta gora egiten eta gure aita haiei errepaka, grazia haundiz esan zuen arte: "*jobar!, Kristoaren hankak eta, gora!, potroak eta, gora!, eta denak gora!...*" Aidean pasa zuten urek Santa Krutzen hartutako neurri hura, eta Kristo gizajoari herriak errespetu pixka bat galdu zion kontu horretan.

– Azelaingo señoritoa ere ezagutuko zenuen.

– Ez, gutxitan ikusi nuen. Neri tristura eman zidan ikusteak herrian hain gizon haundia izan zenak zein egoeratan ikusi behar izan zuen bere burua azkenean. Ni, hura hil zenean kanpoan nenbilen, baina gogoratzen dut behin Azelaingo etxe aurretik gindoazelarik, bera etxeko miradore luzean zegoela eta ume koskor batzu harrika hasi zitzaizkiola "zaharra, zaharra!" oihukatuz. Izkutatu egin behar izan zuen eta kristal guztiak hautsi zizkioten. Ez zen, nonbait, azkeneko aldia izan. Pena haundia eman zidan horrek, halako pertsona bat batere errespetorik gabe baztertzeak.

Bazen ere bere esaera famatu bat. Gure etxea ibai aldera zegoen eta leihotik Allurralde baserria ikusten genuen aurrez aurre; ez zegoen orduan inguruan etxerik. Allurralde hain zen haundia, ze Sorabillako señoritoak esaten omen zuen: "*todos los campos de Andoain son míos, y Allurralde también*".

– Eta herriaren itxura bera nola gogoratzen duzu?

– Herri txikia eta poli-polita, geroztik asko haunditu dena. Pentsa ezazu eliza bakar-bakarrik zegoela erretore etxe zahar eta berriarekin. Eizmenditarrak sakristautzara etorri aurretik, gure aitona izan zen San Martingo sakristau. Beheraxeago hondartza zegoen, eta gogoan dut hondartzan idizainak izaten zirela pasta kargatzen Billabonako papelerara eramateko. Trenbidetikan gora, berriz, ez zegoen ezertxo ere eginda, eta Buruntzako alde horiek garbi-garbiak... Leizaran ibaia ere garbi-garbi eta bizi-bizia zetorren, bertan bainatu eta hamaika arrai harrapatzeko moduan; Oria, ostera, zikinxeagoa, baina ez geroztik urtetan ikusi ditugun ur zikin horiekin.

– Umeetako eskolan zer giro izaten zenuten?

– Lehen esan dizudan bezala, ume-umetan bizpahiru eskolatan ibili nintzen, hamaika urte nituela La Salleko praileak etorri ziren arte. Dakizun bezala D. Joakin Larretak egindako fundazioaren bidez sortu zen eskola eta Basteroko merkatu aurreko etxean bi gradu jarri zituzten. Han aurkitu nuen nik benetako eskola eratua, eta han ikasi nituen ikasi beharreko guztiak hamalau urte bete artean. Gero, Josemaria Iciar zuzendari zena batxilergoa ikasteko baimena eskatzera joan zitzaion aitari, eta aitak, lanerako behar ninduela baina, segitzeko goizetikan ikasten.

Mutikoskorren arteko giroa zein zen ere aipatu nahiko nuke: Andoainen denek zekiten euskaraz. Han-hemenka baziren batzu kanpotik etorriak bertan ikasi zutenak; gurasoek ez agian, baina semealaba gaztek zalantza izpirik gabe. Nire lagunik onenetakoa, Angel Fernandez, "Pitxitxi", Valladoliden jaio zen, baina Andoaina etorri

eta ederki asko ikasi zuen euskaraz; ez zuen izan beste erremediorik! Guk, kalean, ez genuen sekula gazteleraz hitzegiten, oso gauza arraroa zen. Eskolan, noski, derrigorrez erdaraz egin behar genuen, eta euskaraz ikasten genuen gauza bakarra dotrina zen, bai bait zekiten askozaz errazago gureganatzen genuela.

– Beraz, eskolan euskaraz aritzeko aukera ere bazenuten?

– Ez nuke horrenbeste esango. Eskolan bertan ez; egizu kontu inspektoreen beldur izaten zirela beti, ze, etorri etortzen ziren eta sarritan mutiko bata eta besteari galderak egiten zizkieten, beti baten bat mutu noiz harrapatu zai.

– Bada, La Salleko lehen ikasleetako bat izan zinen...

– Bai noski. Hasieratik hiru praile etorri ziren Andoaina, eta gogoan dut kaleko jantziarekin ibiltzen zirela, Errepublikara garaian galerazita bait zuten besterik jaztea. Praile horietako batek izan zuen gorabeherarik herrian, ze, aurreneko hiru praile haiek Allendi etxeko goian bizi ziren, Allendiko nagusia herriko Jueza zelarik orduan, eta bat etxeko alaba zaharrarekin trabatu eta ezkontzera herritik kanpo alde egin behar izan zuten. Eskandalu haundia izan zen Andoainen horren kontura. Gu ume koskorrak ginen eta inpresio hura grabatuta geratu zitzaigun.

– Lagungiroan ze entretenimendu zenuten orduan?

– Herriko festak ziren mutikok irrikiz itxaroten genituenak. Santakruzak eta Sanjuanak: giro zoragarria izaten zen garai hartako festetan. Etxeberrietan festak ere izaten ziren, baina hura auzo pobrea zen eta ez zuten haindainoko indarrik. Sorabillako oilasko jokua ere gogoan dut; gauza izugarria iruditzen zait joku hori, baina gu mutiko ginela zeharo ohituta geunden hura ikustera.

Hala ere, urteko espektakulurik haundiena herrian. Lasarteko automobil karrera zen. Bazkardoko bidetik barrena pasatzen zena. Espektazio izugarria izaten zen eta herri osoa biltzen zuen urtero.

– Eta azkenean, gerra zibila iritsi eta akabo...

– Bai, orduntxe hasi zen denentzako kalbarioa. Gure familia erabat zatituta eta sakabanatuta geratu zen eta dena galdu genuen. Oso urte zailak izan ziren haiek, ama eta biok alde batetik Frantzira, anaia Errusiara bidali behar izan genuen, eta aita, Andoainen kontzejal zela-eta, nazionalak sartu ondoren ere batera eta bestera ibili zen Errepublikako aldean udal administrazioarekin andoaindarrei laguntza ematen.

Gerra amaituta aita Venezuelara abiatu zen; anaiak hamar urte egin zituen Errusian batere atsegina izan ez zen egoera batetan, hau ere nazionalista gisa edo fitxatuta bait zegoen. Ama Andoainen zegoela –azkenik Barcelona-n harrapatu bait zuten eta honuntza bidali–, nik beregana etortzea erabaki nuen, eta berriz ere Andoaina sartu nintzen Josemari Iciarri esker.

– Eta Andoainen zer?

– Gure etxetik dena hostua zuten eta nazionalek beste bati emana gure tailerra. Harengana lan bila joan nintzen, baina alperrik. Andoaindik berriz ateratzea baino nahiago izan nuen Laborden azken saio bat egitea –han lana aurkitzea ezinezkotzat nuen arren– eta Manuel Labordek lana eman zidan. Bere beharrik izan nuenero oso ondo portatu zen nirekin Laborde jauna.

– Gero, soldaduskara joan beharra izan zenuen Marruekosera.

– Bai hiru urte egin nituen soldaduskan Marruekoson, Tetuan-en zehazki. han pasa genituenak kontatzeko gau oso bat beharko nuke: milaka soldadu animalik bezala eraman gintuzten trenean, goseak akatuta... Zoritxarreko hiru urte: baina kontu luzea da.

– Eta azkenean familia osoa Venezuelan elkartu zineten.

– Bai, soldaduskatik itzuli eta Laborde jaunak ofizinetan berriz lana eman zidan, baina gero, Venezuelara abiatzea erabaki genuen aitarekin elkartzeko. Gure anaiak ere, hamar urtez gure berririk izan gabe. Venezuelara jo zuen eta, han, denok elkartu ginen.

– Eta Venezuela bizitza berri bat.

– Bai, hangora egokitu behar. Idazteko askatasuna, giro berri bat eta gure herriarekiko gogomina izan nituen lagun.